




Esportazioak %2,6 hazi ziren abenduan

Atzerrira esportatutako ondasunen balioa
Urte bakoitzeko abendua. Milioi euro




Iturria: Eustat.

Abenduan, euskal esportazioak %2,6 hazi ziren, produktu energetikoek bultzatuta, eta tasa positiboak heldu zieten berriro, lau hilabetez behera egin ondoren. Gorkada horri esker, 2025ean metatutako beherakada %3,6ra murriztu zen. Produktu energetikoek %33,3ko jaitsiera izan zuten, produktu ez-energetikoek aldiz, %1,6koa bakarrik.

Turismoen matrikulazioak areagotu dira

Turismoen matrikulazioa EAEn
Urte bakoitzeko urtarila




Iturria: Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Trafiko Zuzendaritza Nagusiak (DGT) berriki argitaratutako datuen arabera, **urtarrilean 2.382 auto matrikulatu ziren EAEn, aurreko urteko aldi berean baino %2,5 gehiago**. Hala, lau urtez jarraian gora egin du, nahiz eta erregistroak pandemiaren aurreko urteetan lortutakoak baino nabarmen txikiagoak diren oraindik.



Aireko trafikoaren gorakada handia urtarrilean

Euskal aireportuak. Bidaia-
urte bakoitzeko urtarrila. Milakoak




Iturria: AENA

Aurtengo lehen hilabetea 464.000 pertsona baino gehiagok bidaiatu zuten Euskadiko aireportuetatik. Zenbaki horrek %12,4ko gehikuntza dakar, aurreko urteko aldi beraren aldean. Horrela, zifrak berriro hazi dira urtarrilean, iazko jaitsiera txikiaren ondoren, eta urtar- ril bateko erregistrorik handiena lortu da.

Etxebizitzaren gaineko hipotekak %22,5 hazi dira

Etxebizitzaren gaineko hipotekak
Urte bakoitzeko urtariletik abendura bitartean



Iturria: INE.

2025an, etxebizitzaren gainean era- tutako hipoteken kopurua %22,5 igo zen aurreko urtearekin aldera- tuta, 25.505 mailegu berriekin. Eu- riborra urtean zehar %2,5etik behera mantendu izanak hipoteka kopurua 2010etik izan duen mailarik altuene- ra eraman zuen. Hipoteka horien ba- tez besteko zenbatekoa 170.000 eu- rotik gora kokatu zen, inoiz jasotako altuena izanik.